

## Azokak eta jaiak



Nolakoak izango lirateke asteburuak Araba osoan zehar dauden azoka eta jai herrikoitradizional barik? Herrietako jaiak, abeltzaintza azokak, artisautzakoak eta nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak ezinbesteko zutabea dira, Arabako kultura ondareari bizirik eusteko.

Vital Fundazioak une horietan guztietan hartu du parte eta parte hartzen jarraitzen du, eta jarduera horiek garatu daitezen, mota guztietako baliabidek jartzen ditu erakunde antolatzaileen esku: postuak, karpak, standak, e.a.